

5. FUNTSEZKO JARDUERAK

5.1. Produkzio jarduerak

Remindoor-en pantaila-zerbitzua bezero bakoitzarentzat egokituta egiten dugu. Zer egiten dugu?

- Edukia sortu eta pertsonalizatu: Iragarkiak, eskaintzak eta informazio grafikoa prestatzen ditugu bezeroaren beharretara egokituta.
- Pantaila probatu eta instalatu: Pantaila konfiguratu, probatu eta bezeroaren establezimenduan instalatzen dugu.

Jarduera hauei esker, Remindoor-ek bere balio-proposamena betetzen du: bezeroek beti edukiko dute euren informazioa eta iragarkiak eguneratuta.

5.2. Arazo-konponketako jarduerak

Arazoak sortzen direnean, konponketa azkarra eskaintzen dugu:

- Software-akatsak: Urrutitik konpontzen ditugu, zerbitzua eten gabe.
- Pantaila fisikoaren arazoak: Teknikari bat bidaltzen dugu bertara, arazoa lehenbailehen konpontzeko.

Horrela, zerbitzua ez da gelditzen eta bezeroak beti izango du pantaila martxan eta prest.

5.3. Antolaketa eta talde-lana

Gure enpresan lana taldeka egiten da, bakoitzak bere zeregina betez:

- Eduki taldea: Pantailan agertuko diren iragarkiak eta mezuak prestatzen dituzte; edukiaren sorkuntza eta eguneraketa egiten dute.
- Talde teknikoa: Pantailak eta programak ondo funtzionatzen dutela zaintzen dute, eta akatsak konpontzen dituzte.
- Bezeroarekiko harremanen taldea: Instalazioak antolatzen dituzte, bezeroaren zalantzak argitzen dituzte eta laguntza eskaintzen dute.

Talde hauek elkarlanean aritzen direnean, zerbitzua azkar eta ondo eskaintzen da, eta bezeroak esperientzia ona izaten du.

